

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren izena ere bai.

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 49.Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeak aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa . Paseo Errotaburu, 1-9º-3ª. 20018-Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkarteak. Apdo.75. 20150-Villabona.

● **5. artikulua: ZERBITZUAK**

Elkarteak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenean, antolakuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-mailez. Kontsigna serbitzua izango da aldatzeko arropadun poltsa bat bertan utzi nahi duenentzat

.Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kiroledegian.

● **6. artikulua: IRTEERA**

Zeharkaldi luzea goizeko SEITERDIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

● **7. artikulua: KONTROLAK**

Parte-hartzaileek goian azaldutako ibilbidea egin behar dute, eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontroletatik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denborartartean egongo dira zabalik.

● **8. artikulua: BALIZAK**

Ibilbideak plastikozko zinten bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

● **9. artikulua: HORNIDURA**

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko homidura jarriko dute Juanasoro, Santa Barbara, Arlegor eta Lapurtxulo kontroletan. Ibilbidean dauden iturri naturalak: Gurutzeta (18. km) eta Txertota (38. km).

● **10. artikulua: ERRETIRATZEA**

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokiena Lasarte eta Hernani dira.

● **11. artikulua: BUKAERA**

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAR ORDU TERDI (Ibilaldi Luzea) eta SEI (Ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan. Arratsaldeko BOSTERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

49. aizkardiko ibilaldia

2017 Martxoak 26



IBILALDI LUZEA

Luzera 45 Km
Desnibela 2500 m
Iraupena 10:00 ordu
Irteera Ordua 7:00 etan

IBILALDI MOTZA

Luzera 22 Km
Desnibela 1100 m
Iraupena 5 ordu
Irteera Ordua ... 8:00 etan

16.Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria

**MENDI LASTERKETA EZ DENEZ ...
IBIL ZAITEZ OINEZ !!!**



● **1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA**

AIZKARDI Mendizale Elkarteak antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaleatasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Partehartzea zabalatzeko asmoz, bi ibilbide prestatuko dira; bata 16. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdikoa. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da.

● **2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK**

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi-ibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko emiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnitazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkarteak jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

● **3. artikulua: IBILBIDEA**

Aizkardiko 49. ibilaldia 2017ko martxoaren 26an egingo da, irteera eta helmuga Villabonan izango direlarik. Ibilbide luzeak 45 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Lepasoro (105m) - Eskatzu (512m) - Andatza (560m) - Juanasoro (330m) - Oria-Lasarte (25m) - Gurutzeta (165m) - Santa Barbara (239m) - Hernani (45m) - Onddi (540m) - Arlegor (600m) - Adarra (814m) - Eteneta (710m) - Lapurtxulo (590m) - Leizaran ibaia (70m) - Mandabieta (250m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.500 metroko desnibel gehitua du, HAMAR ORDU inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 22 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Lepasoro (105m) - Eskatzu (512m) - Andatza (560m) - Juanasoro (330m) - Atxulonda (165m) - Erdoizta Basoa (370m) - Belkoin (489m) - Basopeta (300 m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1100 metro inguruko desnibel gehitua du, BOST ordu inguruan burutzen dena.


● **4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA**

Informazioa (Martxoaren 1etik aurrera) :
- Telefona (lanegunetan 20etatik 22etara): 649717182
- email : ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea :
Izen-ematea DOAKO da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke:
- Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>
- AIZKARDI Mendi Elkartearen lokalean, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara
- Ibilaldiaren egunean bertan.
Izena emateko behar diren datuak:
- federazioko lizentzia zenbakia, EHNA edo DNI,
- izena eta bi abizen,

Km	LEKUA	ALT	DESNIB. +	DESNIB. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	7:00	7:00	7:10
1,1	BULANDEGI Bidea	65	5	0	7:09	7:14	7:25
2,1	ANTSIBAR Erreka	69	10	0	7:16	7:24	7:38
3,8	LEPASORO Baserria	108	95	45	7:30	7:45	8:00
6,2	PAGAMENDI Baserria	325	348	79	7:50	8:15	8:38
7,6	ESKATZUko gaina	512	525	85	8:05	8:34	9:00
8,7	ZIORTZAKo lepoa	435	541	166	8:14	8:47	9:14
9,3	ANDATZAKo gaina	562	655	168	8:22	8:58	9:27
9,9	ETUMETA Atsedenekua	482	660	240	8:26	9:05	9:35
11,0	K-2 : JUANASOROko gaina	330	665	372	8:35	9:19	9:51
15,0	ZUBIETAKo Futbol Zelaiak	27	735	711	9:06	10:06	10:46
16,1	N-I : ORIA	22	777	750	9:15	10:20	11:02
17,5	Oztaran Erreka - LASARTE	21	841	811	9:27	10:37	11:22
19,2	GURUTZETAKo gaina	165	1000	830	9:42	10:58	11:47
20,5	K-3 : SANTA BARBARAKo gaina	240	1122	886	9:55	11:17	12:08
21,5	ARRIKARTEko lepoa	125	1122	1000	10:02	11:29	12:23
22,9	HERNANI	44	1145	1095	10:13	11:45	12:41
24,0	ELEKTRIKO AZPIESTAZIOA	79	1218	1145	10:23	11:59	12:58
24,9	EGURROLA Baserria	113	1269	1155	10:30	12:10	13:10
26,0	ERROTARANERDIKOAKo errepidea	27	1279	1245	10:38	12:22	13:24
29,1	ONDDIKo gaina	545	1745	1355	11:09	13:10	14:19
30,2	ZORROZTARRIKo lepoa	350	1750	1535	11:19	13:24	14:36
30,7	K-4 : ARLEORKO ZABALA	425	1830	1540	11:24	13:32	14:45
32,2	MANTTALEko lepoa	580	2013	1562	11:39	13:54	15:10
33,1	ADARRAKo gaina	814	2203	1565	11:49	14:09	15:27
34,0	ETENETAKo lepoa	703	2212	1662	11:56	14:19	15:39
35,5	K-5 : LAPURTXULO	565	2245	1818	12:09	14:38	16:01
36,9	MUNTTOKo gaina	483	2253	1921	12:18	14:53	16:19
39,2	OTITA - LEITZARAN IBAIA -	54	2261	2275	12:38	15:23	16:54
40,2	TXERTOTA - SAN ESTEBAN -	205	2395	2282	12:48	15:37	17:10
42,0	LASTUR Atsedenekua	190	2465	2355	13:02	15:58	17:30
42,8	A-15 AUTOBIA	160	2487	2397	13:10	16:07	17:42
44,2	ARRATZAIN Ikastetxeak	115	2523	2474	13:23	16:22	18:01
44,9	OTSABI Auzoa	67	2530	2525	13:29	16:29	18:09
45,0	K-6 : VILLABONA	60	2530	2530	13:30	16:30	18:10

Ibilbide LUZEA



Ibilbide MOTZA

Km	LEKUA	ALT	DESNIB +	DESNIB -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	8:00	8:00	8:10
1,1	BULANDEGI Bidea	65	5	0	8:09	8:13	8:28
2,1	ANTSIBAR Erreka	70	10	0	8:16	8:24	8:42
3,8	LEPASORO Baserria	108	95	45	8:29	8:45	9:11
6,2	PAGAMENDI Baserria	325	348	79	8:52	9:15	9:55
7,6	ESKATZUko gaina	512	525	85	9:06	9:35	10:22
8,7	ZIORTZAKo lepoa	435	541	166	9:14	9:47	10:38
9,3	ANDATZAKo gaina	562	655	168	9:21	9:58	10:53
9,9	ETUMETA Atsedenekua	482	660	240	9:26	10:05	11:02
11,0	K-2 : JUANASOROko gaina	330	665	372	9:35	10:19	11:21
12,8	ATXULONDOko Burdinola	165	693	560	9:48	10:39	11:48
14,4	GARATE Baserria	346	866	576	10:03	11:01	12:20
14,8	K3 : ERDOIZTA BASOA	370	890	577	10:06	11:05	12:26
16,0	BELKOAINgo gaina	489	992	585	10:16	11:22	12:45
17,4	BASOPETA Atsedenekua	300	1000	746	10:26	11:38	13:06
18,5	ALZARTE Baserria	196	1010	860	10:35	11:51	13:25
19,5	OLATZA Baserria - ADUNA -	106	1010	960	10:42	12:01	13:38
20,5	BULANDEGI Bidea	65	1025	1020	10:50	12:14	13:55
21,8	K-4 : VILLABONA	60	1025	1025	11:00	12:30	14:10